

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Zubia Arana

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Udala auzoko Garaikotxiki baserrian jaio zen, hamaika anai-arrebatatik seigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Elorrioko Iguria auzoko Ibarluze baserrikoa. Amak petrikilo osaketa xumeak egiten zituen (bihurrituak, erasanak, etab.) Gerra denboran Bizkaiko Atxondo herriko Arrazola elizatera lehenengo, eta Elorrioko amaren jaiotetxera geroago, babes bila joan zen familia, ganadu eta guzti. Auzoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamalaura arte. Eskolara joan aurretik, egunero kalera esnea eramane eta handik ogia ekartzen zuen. 24 urtera arte etxean jardun zuen, baina baserritik bizimodua atera ezin, eta ezkondu zenean Aranzabal lantegian hasi zen lanean, giltzarrapoak egiten. Bertatik hartu zuen erretiroa. Oñatiko Orbea txokolate lantegiko nagusientzako neskame lanean ziharduen Dionisia Murgiondo Anatxe baserriko zegamarrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte.

Zintak

ARR-163

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-19
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Goxokien paperekin jolasean

- **Erref:** ARR-163/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolasorduan zein jolasetan aritzen ziren kontatzen du: pilotan, ezkutaketan, harrapaketan, txirikilletan garizuman, jaurtiketan... Neskek goxokien paperekin zela jolasten zuten azaltzen du.

2. Umetako eta gaztetako lanak baserrian

- **Erref:** ARR-163/005
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:08:07. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskolan ez zebilenean, ganaduaz arduratu behar izaten zuen. Zortzi urte ingururekin eskolara baino lehen esnea eramaten zion izeba bati kalera eta ogia jasotzen zuen etxera. Eskola bukatutakoan, baserriko lanetaz arduratu zen, 24 urterekin fabrika hasi arte. Zer egiten zuen zehazten du.

3. Behiak uztarrarian

- **Erref:** ARR-163/007
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:17:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Lau behi izaten zituzten etxean, uztarrarian erabiltzekoak. Goldean, simaur-gurdiak, gurdi-irak...

4. Auzolanean bideak konpontzen

- **Erref:** ARR-163/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:17:19. **Bukatu:** 00:18:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Auzolana asko egiten zen. Irailean hiru egunez kale-bideak txukuntzen zituzten eta beste egun batez basabideak.</p>

5. Kainoikadak baserrira

- **Erref:** ARR-163/010
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:25:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, kainoikada bik baserrian zulo handi bi egin zituzten eta etxetik alde egin zuten, Arrazolara amaren ahizparengana. Handik amaren jaiotetxera, Elorriora, joan ziren. Eguna Elorrioko gordelekuan ematen zuten beste askorekin batera.

6. Gose garaian, artoa xehetzeko makina

- **Erref:** ARR-163/011
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:25:37. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bizimodu gogorra izan zuen. Gose garaian ez zeukaten ia ezer jatekorik. Arto-zahia jaten zuten. Aramaiora joaten ziren errotara, debekatuta bazegoen ere. Artoa xehetzeko makina zeukaten etxean eta harekin ere moldatu behar izaten zuten.

7. Fabrikan giltzarrapoak egiten

- **Erref:** ARR-163/013
- **Iraupena:** 0:05:43. **Hasi:** 00:32:09. **Bukatu:** 00:37:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Baserria gustoko zuen baina fabrikan hasi zen hogeita bost urte ingururekin. Orduko lan-baldintzak hobeak zirela dio. Aranzabalen erretiratu zen. Kandauak egiteko prozesua azaltzen du.

8. Giltzarrapoak egiteko prozesua

- **Erref:** ARR-163/015
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:44:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Aranzabal fabrian zer lan egiten zuten azaltzen du, fundizioan, muntaketako prozesuan eta bukaeran. Muntaketan 18 lagun inguru aritzen ziren, gehienak neskak. Bulegoan ere neska bat izaten zen.

9. Soldata igoerak eskatzeko grebak

- **Erref:** ARR-163/016
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:44:32. **Bukatu:** 00:46:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Hiru hilabeteko greba izan zuten fabrian 70. hamarkadan soldata igoerak eskatzeko. Bi-hiru asteko grebak ere egin izan zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com